



Jose Luis Zumeta pintoreak egindako Mikel Laboaren erretratua. BERRIA

## Amets betezko loan

Atzo goizean hil zen Mikel Laboa, Ez dok Amairuren sortzaileetakoa, euskal kantagintza berriaren suspertzaila eta belaunaldiz belaunaldi iraun duen abeslari handia **GEHIGARRIA**

### Torturaren 30 urteko ibilbidea jasotzen duen liburua aurkeztu du Makazagak

Bruselan bizi den preso ohiaren arabera, Espainiari gero eta zailago zaio atxilotuak torturatzen jarraitzea **2-3**

### Obamak Clinton izendatu du estatu idazkari, eta Gates karguan berretsi

Etxe Zuriko kabinetea osatzeko, Holder, Jones eta Napolitano era ofizialean izendatu ditu AEBetako lehendakari berriak **20**

### Supersurren, Bilbon, lanean ari zen behargin bat hil da, harri batek jota

38 urte zituen hildako langileak, eta Obras Subterranas enpresarentzat ari zen, Peñascal tunelean **17**

### 'Zoaz infernura, laztana' eleberria aurkeztu du Anjel Lertxundi idazleak **36**

**BIHAR**  
**Zinema**  
**etxean 3**

**mantangorri**ekin

berria

6 DVD euskaraz

Hegabideko lan-konkateko garrantzitsua da abeslari laboia eta giza liburuak

**+ 4,90 €**

berria

Gehigarri berezia  
Asteartea, 2008ko abenduaren 2a

# Mikel Laboa

(1934-2008)

*Kantuz ehorts nezate, hiltzen naizenian,  
kantuz ene lagunek harturik airian;  
kantuz ariko zaizkit lurrean sartzian;  
kantuz frango utziko diotet munduan,  
kantuz har ditzen bethi nitaz orhoitzian.*



# Orain mitoa da, betiko

Mikel Laboa, 2006ko uztailaren 11n, Donostiako Zurriolan Bob Dylanen aurretik egin zuen emanaldian. Huraxe izan zen azkenekoa. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Mikel Laboa hil da, Ez dok Amairuko kidea, euskal kantagintzaren berritzailea eta belaunaldien arteko zubia, euskal kulturak luzaz oroituko duen kantaria

Juan Luis Zabala

**U**rrats bakarra geratzen zitzaion euskal kulturak inoiz izan duen mitorik handienetarikoa izatera iristeko; aldi berean zailena eta errazena den urrats hori baino ez zitzaion falta. Azken asteetan makalduta egon ostean, atzo goizaldean hil zen Mikel Laboa, Donostiako Poliklinikan, 74 urte zituela. Donostiako Errekalde auzoko beilatokian egin zioten atzo hil-beila; han erraustuko dute gaur, 11:15ean, familia giroan, ekitaldirik gabe.

Hilaren 23an Gipuzkoako Foru Aldundiaren Urrezko Domina jasotzekoa zen Laboa; hil ondoko omenaldi gisa jasoko dute ahaideek. Donostiako Udaleko taldeek, bestalde, Laboari Urrezko Domina emateko tramiteak abian jartzeko eskatuko diote alkateari. 1934ko ekainaren 15ean jaio

zen Mikel Laboa Manzisidor, Donostiako Parte Zaharrean. Pasai Donibanetik hara joana zen familia batean. Aita, Feliciano Laboa, arrantzontzien armadorea zen, eta EAJko zinegotzia Donostiako Udalean. 36ko gerra hasi zenean, Bordelera egin zuen ihes Feliciano Laboak, eta ama eta zazpi seme-alabak Lekeitioko Gardata auzoko baserri batean gorde ziren. Gardatan hil zen Mikel Laboaren anaia bat, Andoni, eta han zela entzun zituen Mikel Laboak Gernika suntsitu zuten bonben leherketa lazarriak, artean hiru urte bete gabe zituela, 1937ko apirilaren 26an.

Gerra amaitu aurretik itzuli zen ama seme-alabekin Donostiara, eta aita ere itzuli zen urte batzuk geroago. Nahiz eta haurtzaroan bere hizkuntza nagusia izan, gerra ondoko Donostiako giroak euskara neurri handi batean atzertzeraz eraman zuen Mikel Laboa gaztea.

15 edo 16 urte inguru zituela hasi zen Laboa gitarra jotzen. Juan Jose Lasak mediku psikiatrararen eraginez (Laboaren arrebatako baten senarra baitzen). Jangoluke taldea sortu zuen garai hartan, beste bi lagunekin batera.

Medikuntza ikasketak egin zituen, Madrilen lehen ikasturtean (1953-54), Iruñean eta Zaragozan gero. Erabaki horretan ere izan zuen eraginik Juan Jose Lasak.

Medikuntza ikasten aritu zen urte guztietan musika lantzen jarraitu zuen. Antton Lafon adiskideak Atahualpa Yupanquiren disko bat ekarri zion Bordeletik, 50eko hamarkadaren hasieran. Garai hartako giro kultural itogarrian nekez entzun ahal zen halako ezer Hego Euskal Herrian, eta Yupanquiren lanak txundituta utzi zuen, hala doinuen nola hitzen aldetik. Yupanquiren disko gehiago erosteko asmoz Donibane Lohizunera joan zenean, oso gustuko beste kanta-

ri bat deskubritu zuen: Violeta Parra.

**Iruñean, euskara berreskuratu**  
Iruñean ikasten aritu zenean (1955etik aurrera), euskara berreskuratzeari gaitzeskeraz gain, Georges Brassens kantuak ezagutu zituen, eta Carlos Itoiz gitarra jotzaile flamenkoaren klaseak hartu. Iruñean egin zuen jendaurreko lehen emanaldia ere, 1958an, gaztelaniaz. Elbarrituen aldeko jaialdi bat izan zen, Gaiarre an-

**Iruñean egin zuen jendaurreko lehen emanaldia, 1958an, gaztelaniaz**

**Euskarazko lehen kantaldia Zaragozan egin zuen, bertako euskal ikasleentzat**

tzokian, eta Laboak Brassens, Yupanqui eta Parraren kantuak eman zituen, lagunartean kantu ohi zituen The Beatlesen kantu batzuen bertsioez gain.

Euskal kantagintzarako urratsa eman zezan erabakigarria

izan zen Ipar Euskal Herriko herri kantagintzaren ezagutza. Joseba Bidaurrezagaren eskutik, Ximun Haranek jasotako herri kantuen bilduma ezagutu zuen: *Chinaurria, O Pello Pello, Sujet eder bat, Chori erresifula...* Geroago, Zaragozan ikasten ari zela, Jorge Riezuren *Flor de la canción popular vasca* bilduma ezagutu zuen.

Gaixoaldi luze baten ondoren, kantu tradizional haietako batzuk berreskuratzen hasi zen Laboa, 1962an, eta Zaragozan egin zuen euskarazko lehen kantaldia, bertako euskal ikasleek Teatro Argensola antzokian antolatutako jaialdi batean. *O Pello Pello, Bereretxeren Kanthoria* eta gisako kantu tradizionalak gain, Iparragirreraren kantu ezagun batzuk ere eman zituen. Musikari agiria atera zuen, «*artista de circo y variedades*» zela zioen karneta.

Medikuntza ikasketak 1963an bukatu zituen, Zaragozan. Bartzelonara jo zuen gero, haurren neuropsikiatria espezialitatea egitera, eta Bartzelonako Santa Creu i San Pau erietxean mediku gisa hasi zen lanean. Baina ordu-rako oso hazia zuen —barrenbarrenean aspalditik sendo txerta-

**MIKEL LABOA** (1934/2008)

«Hiru maisu izan ditut beti, hasiera batean nire musikak haiek egindakoarekin zerikusi handirik ez zuen arren: Atahualpa Yupanqui, Violeta Parra eta Georges Brassens»

tua—musikaren harra. Setze Jutges taldearen eta Nova Canço Catalanaren mugimendua gertutik ezagutu zuen, 1964an: Pi de la Serra, Lluís Llach, Maria del Mar Bonet, Joan Manuel Serrat, Raimon... Laboak hainbat kantaldi egin zituen, euskarazko kantuak emanez, Bartzelonako euskal ikasleen aurrean, eta Bartzelonan sortu zituen berak idatzitako lehen kantuak ere. Michel Labe-gieriek egindako euskarazko kantu berriek ere eman zioten kantu berriak sortzeko adorea.

Donostiara itzuli zen gero. 1964ko abuztuan ezkondu zen, Marisol Bastidarekin, eta Donostiako ospitalean hasi zen lanean. Urte horretako abenduan grabatu zuen lehen diskoa, *Azken*, Baionan, Goiztiri diskoetxearekin argitaratua eta lau kantu tradizionalak osatua: *Amonatxo*, *Be-reterretxeren Kanthoria*, *O Pello Pello* eta *Aurtxo txikia*.

Benito Lertxundi kantariaren berri izan zuen 1965ean, hura lehiaketa batean finalista izan zelako. Lourdes Iriondo eta Julen Lekuonarekin ere harremanetan

### Bartzelonan zela, gertutik ezagutu zuen Setze Jutges taldea eta mugimendua

### Kataluniakoaren antzeko mugimendua sortu nahi izan zuen Euskal Herrian

jarri zen, Katalunian bertatik bertara ezagutu zuen antzeko mugimendua bat Euskal Herrian sortzeko asmoak bultzatuta. Jose Antonio Sistiaga artistaren bidez Jos Anton Artze ezagutu zuten, eta hura ere taldera bildu zen berehala. Xabier Lete eta Jesus Artze ere aurki sartu ziren taldean.

Bartzelonara itzuli zen Laboa 1965eko udazkenean, baina Euskal Herrian sortzen hasia zen taldea alde batera utzi gabe. Bartzelonako euskal ikasleek emandako aholkua jarraituz, Jorge Oteiza bisitatu zuten Irungo etxean, taldearen asmoen berri emateko, eta hark aholkatu zuen Ez dok Amairu izena jartzeko taldeari, Resurreccion Maria Azkuek jasotako ipuin batean oinarrituta.

1966an egin zuen Ez dok Amairu aurreneko emanaldia, Hernanin, artean izen hori erabili gabe. Emanaldi horretan parte hartu ondotik Bartzelonara itzuli zen Laboa, eta ez zuen bigarren emanaldian parte hartzerik izan. Baina taldearekin kontaktu estuan eta emanaldi gehienetan parte hartzen jarraitu zuen, eta Laboaren historia Ez dok Amairu-

renarekin estu lotuta egon zen hurrengo urteetan.

Urte berean grabatu zuen bigarren diskoa, Bartzelonan; baina zentsurarekin izandako arazoen ondorioz ezin izan zuen Bartzelonan argitaratu, eta Baionako Goiztiri argitaletxearekin kaleratu zuen, izenbururik gabe. Oihartzun handia izan zuten diskoko lau kantuek, *Egun da Santi Mariña*-k batez ere.

Donostiara itzuli eta San Miguel Patronatuan hasi zen lanean, 1967an, haurren neuropsikiatrigisa. Ondorengo 20 urteetan atxiki zitzaion lan horri, goizez.

Ez dok Amairurekin nahiz bakarka emanaldiak egiten jarraitu zuen ondorengo urteetan. Zailtasunak izan zituen debekua zirela-eta. Adibidez, agertokitik polizia etxera eraman zuten behin, Irunen.

### Bertolt Brechten poemak

Beste bi disko txiki grabatu zituen 1969an, Urnietan: *Bertolt Brecht'en lau poema* eta izenbururik gabeko beste bat, Goiztirik eta Herri Gogoak argitaratuak, hurrenez hurren.


Aurreneko kantu esperimental edo *lekeitio*-a 1968an sortu zuen: *Baga, biga, higa* (*Lekeitio 2*) (ez zuen inoiz *Lekeitio 1* izenburuko kanturik egin). Kantu hori izan zen Ez dok Amairu 1970ean estreinatu eta bi urtez Euskal Herri osoan zabaldu zuen *Baga, biga, higa* sentikariaren oinarritako bat; Laboak Jos Anton Artzeren *Txoria txori* poemari oinarritutako kantua ere sentikariaren parte garrantzitsua izan zen. Sentikari horren sorreran garrantzi handia izan zuten Jose Mari Zabala musikariaren eta Jose Luis Zumeta pintorearen parte-hartzeak.

Ez dok Amairu taldea 1972an desegin zen, *Baga, biga, higa* sentikariaren grabazioa argitara eman gabe. Bi urte geroago lehen disko luzea grabatu eta kaleratu zuen Laboak: *Bat-Hiru* (Herri Gogo).

Ez dok Amairuko kide batzuek Zazpíribai taldea osatu zuten, Ipar Euskal Herriko hainbat kantari eta musikarirekin. Laboak, aldiz, *ikimilikiliklik* bidekidetarian parte hartu zuen Jos Anton eta Jesus Artze anaiekin, Jose Mari Zabalarekin eta Jose Luis Zumetarekin batera. *Baga, biga, higa* sentikariak zabaldu zuen ildoan aurrera jarraitzen zuen *ikimilikiliklik*-ek, arte adierazpideak uztartuz. Artzeren poema bisualak eta Zumetaren lanak proiektatzen zituzten emanaldietan, oholtzaren atzealdean.

1975ean estreinatu eta 1978a arte eskaini zuten *ikimilikiliklik*. Arrakasta handia izan zuen 1976ko Veneziako Biurtekoan.


Ondorengo urteetan kantari



Mikel Laboa gaztetako kantaldi batean. 'MIKEL LABOA' LIBURUA



Laboa, eskuinean zutik bigarrena, Ez dok Amairuren argazkian. BERRIA



Agurtzane alabarekin eta Marisol Bastida emaztearekin. JOSE MARI ZABALA

gisa jarraitu zuen, hasieratik bildutako jarraitzaileak galdu gabe entzule belaunaldi berriak erakarrituz, eta musikari berrientzat ere ezinbesteko erreferentzia bihurtuz. *Lau-bost* diskoak (Xoxoa, 1980, Jean Phocas teknikariarekin grabatua) izandako harrera beroa horren adibide garbia da. *Lekeitioak* egiteari utzi gabe, poeta garaikideen lanak musikatu zituen disko horretan: Bernardo Atxaga, Xabier Lete eta Joseba Sarrionandia.

### Salvadorrekin elkarlanean

1984an hasi zen Iñaki Salvador musikariarekin kolaboratzen. Oso harreman estu eta emankorra izan zuten biek ondorengo urteetan, hala disko berrietan nola emanaldietan. Josetxo Silguero, Jesus Artze, Carlos Itoiz, Joseba Tapia eta beste musikari batzuk ere Laboaren kolaboratzaile estu izan ziren urte horietan.

Euskal musikariaren omena jaso zuen 1990ean, *Txerokee* disko kolektiboaren bidez. Mikel Laboaren kantuen bertsioak grabatu zituzten hainbat taldek, musika-

### Aurreneko 'lekeitio'-a 1968an sortu zuen: 'Baga, biga, higa' (*Lekeitio 2*)

### Euskal musikariaren omena jaso zuen 1990ean, 'Txerokee' disko kolektiboarekin

ri gaztez osatuak horietako gehienak.

Beste ekitaldi garrantzitsu askotan ere protagonista edo parte-hartzaile izan da azken urteotan: beste artista batzuekin batera kultur espedizioa egin zuen Kubara, 1990ean; Donostiako Orfeoaren 100. urteurreneko ospakizun kontzertuan—*Baga, biga, higa*-ren bertsio sinfonikoaren emanaldiarekin— parte hartu zuen, 1997an; Imanol Uriberen *Haika Mutil* filma—Mikel Laboari buruzkoa—estreinatu zen Donostiako Zinemaldian, 1997an; Euskal Herriko Gazte Orkestrak *Gernika Zuzenean 2* grabatu zuen, Donostiako Musika Hama-bostaldiaaren barruan, Laboa omentzeko, 1999an; Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina jaso zuen, Jos Anton eta Jesus Artze anaiekin eta Benito Lertxundirekin batera, 2000. ean; Julio Medemen *La pelota vasca* (2003) filmeko musika sortu zuen; Olomouc-en (Txekia) emanaldia egin zuen, Josetxo Silguero, Bernardo Atxaga eta Ruper Ordorikarekin batera, 2004an; Bob Dylanen aurretik kantatu zuen, Donostiako Zurriolan, 2006an. Hura izan zuen azken emanaldia.

## MIKEL LABOA (1934-2008)

«Hasieran Artze eta hauengana jotzen nuen, gero pasatu nintzen Atxaga eta Sarrionandiarengana. Poeta handiak dira guztiak, gustuko ditut haien hitzak. Ni ez naiz inoiz idaztera animatu»



Ez Dok Amairu taldeko kideak Atahualpa Yupanqui kantariarekin. BERRIA



JosAnton Artze, Mikel Laboa eta Xabier Lete. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

# «Erdi itxitako begien misterioa»

Mikel Laboa Ez Dok Amairun kide izandakoaren «xumetasuna» eta «misterioa» goraiatu dituzte JosAnton Artzek, Xabier Letek eta Benito Lertxundik

**Gorka Erostarbe** Donostia

**E**z Dok Amairuren hasieran ezagutu zuten elkar JosAnton Artzek (Usurbil, Gipuzkoa, 1939) eta Mikel Laboak, eta *ikimilikiliklik* bidekidekarian ere elkarrekin aritu ziren Ez Dok Amairu desegin eta gero. Artzeren poemak dituzte oinarri Laboaren kanturik ezagunenetako batzuek (*Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak*, *Txoria txori...*). Azken urteetan ere sarri egoten ziren elkarrekin, harreman estua izan baitute beti Mikel Laboa eta Marisol Bastida senar-emazteek Artzetarren familia osoarekin.

Hitzik gabe geratu da Artze, Laboaz zer oroitzapen duen galdetutakoan. Haren musikari lanaz galdetutakoan hasi da hizketan. Kantuzaharrak berreskuratu, ikasi eta zabaltzeaz gain, «meritu handiko lan bikaina» egin du Laboak musikari gisa jorratu dituen beste bi lidoetan ere, Artzeren ustez: hala kantu berrietan nola kantu esperimentaletan.

Xabier Lete (Oiartzun, Gipuzkoa, 1944) adiskide eta Ez Dok Amairu taldeko kidearentzat, Laboak jorratutako hiru atalak dira interesgarriak: «Bazuen dohain berezi bat, edozein ataletako kantua izanik ere, ezohiko dimentsio edo misterioa gehitzen zion. Kantu zahar bat kantatzen zuen, polita bai, baina ez beste munduko ezer, beste batzuek ere kantatzen zutena, *Oi Peio Peio*, esaterako... Baina Mikeli *Oi Peio Peio* kantatzen entzutea gauza misteriosu bat entzutea bezalakoa zen».

Poeten olerkiekin kantuak egitea izan zuen beste bide bat Laboak. «Gaurko olerkarien testuak aukeratu eta haiekin kantuak sortzeko orduan, sekulako trebetasuna zuen horretarako aldrebesenak ziren poemak ere kantu bihurtzeko», oroitu du Artzek. «Neurri libreko eta errimarik gabeko testuei oso ondo egokitzen zitzaizkien doinuak sortzen zituen, nik idatzitako *Gogo eta gorputzaren zilbor hesteak* poemarekin egin zuen bezala, adibidez».

Bigarren molde horretako kantuetan ere «misterioa eta lilura»

zituena Laboak, Leterentzat: «Beharbada beste batzuek izan ez duguna». Baina, «misterio handiena» arlo esperimentalean nabari zitzaion, *Lekeitio*-etan, Leteren iritzian: «Niretzat batzuetan izugarri indartsua eta hunkigarria zen sail hori, eta beste batzuetan ez hainbeste... Atal horretan ere bere porrotak izan zituelako, baina lortzen zuenean... hor nabari zitzaion zeukan dohain berezi hori hitzetatik, musikatik eta denetik haratago legokeen esparru misteriosu baten oihartzuna edo ukitua ekartzekoa».

Laboaren kantu esperimental edo *Lekeitio*-ek Laboaren ezintasun bat izan dute oinarri, Artzeren ustez: «Hizketarako zailtasun handiak zituen, ez zuen erraztasunik elkarriketa luzeetarako, ez euskaraz eta ez erdaraz. Txori batek bezala hitz egiten zuen. Nik uste dut bere kantu esperimentalekin bere hizkuntza bilatu zuela. Horretarako beste herrietako jardunetan bilatu zuela askotan oinarria. Batetik, eragin handia izan zuten gerra garaian Lekeitio zela ezagutu zituen arrantza-

leen oihuek, eta, bestetik, garrantzi handikoak dira beste hizkuntzetan barrena egin zituen bidaiak ere: portugesa, ingelesa, espainiera... Babel aurreko hizkuntza baten bila bezala aritu zen».

**Agertokian «hunkigarri»**

Leteren hitzetan, «Mikel agertokian ikustea ere hunkigarria zen. Baina, hunkigarria zen berak nola egiten zuen, ez hainbeste egiten zuena, egiten zuena ez zen-eta oso beste mundukoa». Mikel Laboaren «alderdi historionikoa» oso polita zen Leteren ustez: «Aktorearen zentzumen berezi bat zuen. Kantatzen zenean begiak erdi itxita jartzen zituen. Beste batzuek ere jarri izan ditugu begiak erdi itxita, baina kantuan kontzentratzeko. Mikelek begiak erdi ixten zituzenean, bazirudien zerbaiti begiratzen ziola. Zerbait misteriosu begiratzen zuen, bere keinu horrekin... eta adierazi nahi zuena lortzen zuen. Estilo aldeetik eta komunikazio aldetik misterio handi batez eta lilura berezi batez inguraturiko tipoa zen. Eta uste dut beste inork ez duela eduki faszinazio harrigarri hori».

Mikel Laboa eta Benito Lertxundi (Orio, Gipuzkoa, 1942) kide izan ziren Ez Dok Amairu kolektiboan. Lertxundiren iritziz «artista handia» zen Laboa: «Askatasunaren betikotasunean sartu da bera, baina haren obrak hemen jarraitzen eta jarraituko du jendea hunkitzen. Hori da gelditzen den hatsa».

Mikel Laboaren ludikotasuna eta xumetasuna nabarmenduko lituzke Lertxundik: «Bera gehiago zen lagunartekoa, egunerokotasun erritual txikiak zituen. Xumetasunean dago sakontasuna. Ez sinplekerian. Sinplekeria azala da, eta xumetasuna da sakona. Eta Mikel oso xumea zen».

Laboak artea atzemateko zuen modu berezia gogoan du Lertxundik: «Hegalaria zen. Igual botatzen zuen oihu bat inork espero ez zuenean. Eta handik zertorkion gero sorkuntza».

Mikel Laboaren heriotzak

«pena eta halako urradura edo zauri bat» ireki du Xabier Leterengan: «Galdu dugun lagunaren mina. Melankolia bat. Ez da iluna, baina melankolia handi bat. Eta nik badut behar izugarri bat, berraurkuntzarena. Nik maite izan dudana eta galdu dudana jendearekin nahiko nuke nonbait, ez dakit nola eta non, berriro aurkitu». Jesus Artze, Julen Lekuona, Lourdes Iriondo eta Mikel Laboa

“

**Txori batek bezala hitz egiten zuen. Bere kantu esperimentalekin bere hizkuntza bilatu zuen»**

JOSANTON ARTZE  
Poeta

**«Misterio handi batez eta lilura berezi batez inguraturiko tipoa zen»**

XABIER LETE  
Poeta eta kantaria

**«Xumetasunean dago sakontasuna, ez sinplekerian. Mikel oso xumea zen»**

BENITO LERTXUNDI  
Kantaria

Ez Dok Amairuko kide izanak ditu gogoan Letek.

Laboarekin izandako harremana oroitzapen urratu zaio ahotsa Leteri ere. Beti sentitu izan du Laboa «adiskide bat». Ez Dok Amairuren denboretan harreman pertsonal eta fisiko «estua» izan zuten; gero taldea desegin zenean, harreman hori «baretu» egin zen, bakoitzak bere bideari jarraitu zion eta. «Ez genuen sarri elkar ikusten, nahiz eta ni joaten nintzen haren kantaldietara eta gero topatzen ginen han eta hemen».

Beste nabardura bat badago, Letek argitu nahi lukeena: «Taldea desegin zenean geratu ziren zauriak, garraztasunak. Baina urteak pasatzen joan diren bezala, elkarrengana amultsukiago hurbildu gara, eta elkarrekin bakera egin dugu».

**MIKEL LABOA** (1934-2008) «Ez Dok Amairun hasi ginenean gure nahia zen tradizioa ezagutu eta aurrera joatea. Beti oinarri bat izan behar da aurrera egiteko, eta oinarri hori tradizioak eman dezake»



Bernardo Atxaga idazlea eta Xabier Lere abeslari eta poeta elkar besarkatzen, atzo Errekaldeko beilatokia. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

# Aurpegi tristeak eta hitz ederrak

Ehunka lagun joan da Mikel Laboari azken agurra ematera, Errekaldeko beilatokira: musikariak, idazleak, politikariak, senideak eta lagun mordoa

## Idoia Etxeberria Donostia

**Z**uhaitzak, hostoak galtzen. Neguaren iragarpen. Burdinazko zeru grisa. Euri jario. Jendearen bisaia eta eguraldia bat zetozen atzo. Triste zeuden. Ehunka lagun hurreratu zen Mikel Laboa musikariari azken agurra ematera, Errekaldeko beilatokira, Donostiara. Serio, burumakur. Distira begietan. Gaur goizean erraustuko dute, 11:15 aldera.

Mikel Markez aterki bila sartu zen, arratsaldeko bostak jo aurretikoan; Joseba Tapia musikaria zain zuen. Aterkipean joan ziren biak, Laboaren sendiari samina agertu eta gero. Beroki handiekin, gehienak beltzak, iristen ziren bisitariak, kanpotik eta barrutik hoztuta. Eta bigarren gelarantz joaten ziren. Familiakoak, lagunak... baita euskal kulturako aurpegiak ere. Jabier eta Fermin Muguruza anaiak elkarrekin iritsi ziren, eta segituan ikusi zuten jende ezaguna. Besarkadak berok izan ziren. Eskua sorbaldan.



Muguruza anaiak ere azken agurra ematera joan zirenean. IMANOL OTEGI / ARG. PRESS



Rami musikaria, Atxaga eta Ruper Ordorika abeslaria. IMANOL OTEGI / ARG. PRESS

Bostekoa. «Hotza sentitu dugu denok, hori komentatu dugu», azaldu zuen irtendakoan Fermin Muguruzak. Laboa «belaunaldien arteko lokarria» izan dela nabarmendu zuen, «dokarri estua: beti zegoen laguntzeko prest, eta oso adi musikan gertatzen zena-rekin».

Bi emakume irten ziren, malkoak begietan; batek eguzkitako betaurrekoak jantzi zituen. Bernardo Atxaga idazlea aparkalekuan zegoen, berrikeretan, irribarre etsiarekin. Iñaki Salvador piano jotzailea iritsi berria zen; baita Koldobika Jauregi artista ere. Benito Lertxundi, berriz, kanporako bidean zegoen ordurako. Begiak gorrituta zituen, eta Laboa pertsona maitagarria zela nabarmendu zuen: «Animalia maitagarriak nola izaten diren, oso kuttunak; tankera horretako gizona zen. Oso tipo bitxia, xumea, artista handi bat. Artista, baina, era berean, lotsatia eta pixka bat beldurtia».

Ez dok Amairuko hainbat lagun zeuden: Josanton Artze poeta, Jose Anjel Irigarai... BERRIA egunkariko Martxelo Otamendi eta Joan Mari Larrarte ere han ziren. Andre bat irten zen, malkoak xukatzen, eta Miren Azkarate Jaurilaritzako kultura sailburua haren atzetik: modu batean edo bestean Laboa ez dela sekula jendearen oroimenean faltako esan zuen, belaunaldiz belaunaldi iraungo duela. «Oraindik iruditzen zait, makalaldiak makalaldi, ikusi egingo dudala ekitaldi batean edo Matia kalean».

Xabier Lere musikaria iritsi zenean, lagun eta ezagun asko gerturatu zitzaizkion. Roman Sudupe Gipuzkoako ahaldu nagusi ohiak besarkada eman zion, baita Jose Mari Iriondo kazetariak

ere. Atxagak ere ongi etorri beroa egin zion Leteri. Besarkadaren ondotik, eskutik helduta egon ziren une batez, hizketan, kazetariaren flaxen argipean. Aldika irribarrez, baina tristura ezkutatu ezinik. Atxagak ez zuen adierazpenik egin: «Hurbilegia zen niretzat...». Leteren arabera, Laboak kantuari «halako misterio berezi bat» ematen zekien. Lagun handia zuen: «Ez Dok Amairuko garaietan harreman handiagoa genuen, orain gutxi xixea, baina elkar ikusten genuenean kariño handiarekin tratatzen ninduen. Joan dela eta pena!».

## Xuxurlak, nekea

Tentsioa igartzen zen beilatoki barruan. Jendearen joan-etorri pausatu eta iluna. Aurpegi gorrituak, ahots dardartiak, xuxurlak, nekea. Oroitzapenek malkoak ihesean jartzen zituzten. Kanporako bidean, kazetariaren aurretik ahalik eta azkarren igarotzen saiatzen ziren asko. Juan Carlos Perez abeslaria, Xabier Montoia idazlea, Felix Marañña idazlea, Oreka TX musika taldeko kideak, Karlos Gimenez piano jotzailea, Ruper Ordorika abeslaria... kultura munduko pertsona asko zebiltzan hara eta hona.

Inazio Mujika Iraola idazlearen ustez, Laboa bakean dago orain, sufrimendu gabe. Eta beti izango dugu barruan: «Gure hezkuntza sentimentalarekin lotutako pertsona bat da Mikel, haren kanta asko gure bizitzarekin lotuta daude, eta hori kantari bati buruz esan daitekeen gauzarik ederrena da. Nik oroitzapen pila bat ditut haren kanteekin lotuta: onak eta txarrak, eta horiek gogoratzea, guregan bizitzea... hori ez bada eternitatea, zer da?».

Maisu handia, erreferentzia, apaltasuna, laguntasuna... hitz ederrak besterik ez ziren entzuten. Juan Antonio Urbeltz antropologoa ere hunkituta zegoen: «Aspalditik ezagutzen genuen elkar. Emaztea eta biok ezkondu ginenean, gure ezkontzan kantatu zuen Mikelek, eta txalaparta Artze anaiek jo zuten. Jakin dudanean, irudi hori etorri zait: 1968ko martxoaren 13a. Zen gizon...», esaldia bukatu ezinik geratu zen, begiak gorri. «Zutabe bat da euskalgintzan. Mikel aparta da!».

Imanol Lazkano bertsolariarentzat Laboa «gizon handi bat zen; ume handi bat, hobeto esanda. Ume handi despistatu bat. Gozo eta lagunartekoa. Mundu guztiak maite zuen, eta hori zaila da gaurko egunean. Bakarretako bat izango da. Haren artelana ere nabaria da, eta hor geratuko da: hilko ez den pertsonaia bat da». Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusiak Iparragirrearekin, Xepelarrekin eta Txirritarekin parekatu zuen: «Beti gogoan izango dugu».

**MIKEL LABOA** (1934/2008)

«Ni hasten naiz kantuak egiten, eta niri gustatzen bazait, aurrera egiten dut. Aurren-aurrena niri gustatu behar baitzait. Horrela bada, kantua osatuz doa, eta, azkenean, nire memorian geratzen da»

Mikel Laboa Lekeitioko hondartzan, joan den urteko azaroan, *Lekeitiok* bildumaren berrargitalpena aurkeztu zuen egunean. JON URBE / ARGAZKI PRESS

# Hiru adarreko zuhaitza

Herri kantu ezezagunak berreskuratzeak, euskal poeta garaikideak musikatzeak eta 'lekeitioen' lan esperimentalak osatu dute Laboaren ibilbidea

Jon Eskisabel

**K**arismatikoa, maiztagarria, berezia, apala... Mikel Laboaren izaerari buruz aipatu daitezkeen izenondo horiei guztiei beste bat erantsi behar zaio haren kantagintzari dagokionez: bakana. Ez dago euskal kantagintzan, tradizioa eta garaikidetasuna uztartzeko, sustraian eza gutzatik abiatu bide berriak proposatzeko eta belaunaldi gaztekin harremana izateko halako kezka, kemena eta ausardia erakutsi duen beste egilerik. Laboaren kantagintzan, Zuberoko herri kanta eta John Cage batzen dira, Gabriel Aresti eta Thelonious Monk, Jos Anton Artze eta Bertolt Brecht, Roy Hart eta Joseba Sarrionandia, Camaron de la Isla eta Jose Mendiaga... Bertakoari atxikirik, eta kanpokoari zabalik. Jos Anton Artzek 1974an *Bat-Hiru* diskoaren harira idatzi zuenez, «atzoko kantukeran oinarritu zen [Laboa], han alfabetizatu zuen bere burua, gaurko bo-

rrokaren adierazpen izateko beharrezko zeritzaion (...). Mundu zahar honetan berririk proposatzen ez duenak, dela artegintzan, dela gizarte borroketan, mundu zaharretarako merituak biltzen ari da». Eta Laboak uko egin zion horri.

Hiru adarrek osatu dute abeslari donostiarraren kantagintza, 60ko hamarkadaren hastapentean gitarrarekin jendaurrean abesten hasi zenetik. Hiruren artean lehenengoa euskal herri kantu ezezagunen berreskuratzea izan zen. Hego Amerikako kantarien piezak joz (Atahualpa Yupanqui, Violeta Parra...) ase zuen Laboa gazteak kanturako grina 50eko hamarkadaren amaieran, baina Ximun Haranek osaturiko Club du Disque Basque bildumaren bidez euskal kantu tradizionalak ezagutzeak lilura sortzeaz gain, haiek interpretatzeko eta zabaltzeko gogoa piztu zion 1962an. Hortaz, Laboak grabatu zituen lehen kantuak herri kantuak izan ziren: *Bereterretxeren kantoria*, *Aurtxo txikia*, *Urtsuako kanta*, *O Pello, Pello, Goi-*

*zuetan*, *Haika mutil...* Geroztik, disko guztietan jaso du kantutegi tradizionalako aleren bat edo beste: *Txinaurria*, *Xoxo beltza*, *Xori erresinula*, *Lore sortu orduko...* Horietako asko *a capella* abesten ziren ostatu eta baserrietan, eta Laboa izan zen gitarrarekin lagundu zituen lehenengoa. Ximun Haranek berak lagundu zion lehen disko txikia grabatzen, Baionan.

Ia aldi berean, beste aurkikuntza bat izan zuen. Hego Euskal Herrira sasia iristen ziren Mixel Labegerieren diskoak entzutean jabetu zen euskaraz ere kantu modernoak sor zitezkeela, egile garaikideen hitzekin. Bartzelonan bizi zela, Gabriel Arestiren poema batean oinarritu zen bere lehen kantua sortzeko: *Apur dezagun katea*. 1966an grabatu zuen bere bigarren disko txikian, Bartzelonan bertan, Arestiren beste poema batekin batera: *Egun da Santi Mamiña*. Ordurako, Kataluniako El Setze Judges taldeak *nova canço*-rekin egindakoa euskal kantagintzara ekartzeko egitasmoan murgilduta ze-

goen Laboa, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, Jos Anton Artze eta Ez dok Amairu taldea osatuko zuten beste hainbat lagunekin batera.

Poeta garaikideen olerkiak musikatzeke ildo horretan, Jos Anton Artze, Xabier Lete, Bernardo Atxaga eta Joseba Sarrionandiaren obrara jo du Laboak gehienetan.

Haatik, bere sorkuntzaren bakanasunaren erakuslerik argiena 1968an hasi zen garatzen La-

**Bertakoari atxikirik eta kanpokoari zabalik jardun du Laboak 40 urteotan**

**Lekeitioen saila aurrera eramatean erakutsi zuen berezko sortzaile nortasuna**

boa. Orduan sortu zuen bere lehen pieza esperimental, Julen Lekuonaren bi poema onomatopeiko oinarri hartuta, *Baga biga biga* ikuskizunerako. Adierazpide berri baten bila zebilen Laboa, zeinean fonetika eta gorputz adierazmenaren bidez ohikoetatik aparteko bideak ikertuko zituen. Roy Hart antzerki zuzendaria irakatsitako ereduari jarrai-

tu zion Laboak, eta *Lekeitiok* izena jarri zion sorkuntza esperimental horren fruitu sortari.

Entzuleen belarrietara batere errazak ez ziren sorkuntza haiek aurrera eramatean erakutsi zuen Laboak berezko sortzaile nortasuna. Orain dela urtebete, *Lekeitiok* bildumaren berrargitalpena zela eta egindako adierazpentean aitortu zuenez, jendearen erreakzioaren beldur zen lehen lekeitiok abesten hasi zenean, baina ez zuen atzera egin. «Barnean sortutako zerbait gustatzen baldin bazait, kanpora atera behar dudala pentsatzen dut, jendeari gustatu edo ez. Inoiz ez dakizu zer zorte izango duten abestiek».

**Hainbat lan mugarri**

Lau disko txiki eta 11 luze-horietatik bi bikoitzak dira-kaleratu ditu Mikel Laboak 40 urtetik gorako ibilbidean. Horien artean daude euskal kantagintzan mugarri diren zenbait lan, *Bat-Hiru* (1974) eta *Lau-Bost* (1980), besteak besteak. Halaber, zuzenean grabaturiko bi disko utzi ditu.

Laboa beti egon da belaunaldi gazteetatik oso gertu, eta horren testigantza da hainbat taldek *Txerokee* diskoan egin zioten omenaldia. Inaki Salvadorrek ere grabatu zuen disko bat Laboaren kantuen moldaketa instrumentalekin, *Zilbor hestea*.

**MIKEL LABOA** (1934-2008)

«Hizkuntza konbentzionaletatik aparte badago komunikatzeko beste bide bat. 'Eup!' edo beste zerbaitekin gauza asko komunikatu daitezke. Edo irrintzi batekin, adibidez»



**Azken (EP)**  
Goiztiri, 1964

■ Baionan, Ximun Haranen laguntzaz, grabatu zuen Mikel Laboak lehen disko txikia. Lau kantu jaso zituen *Azken*-en: *Berretxereren kantoria*, *Aurtxo txikia* eta *O Pello, Pello* abesti herrikoiak eta Jean Barbier garzarraren *Amonatxo*.



**Izenbururik gabe (EP)**  
Goiztiri, 1966

■ Ez Dok Amairu taldea ordurako sortua zela, beste disko txiki bat grabatu zuen, Bartzelonan. Bi kantu herrikoiak batera (*Urtsuako kanta*, *Goizuetan*), Gabriel Arestiren bi poema musikatu zituen: *Apur dezagun katea* eta *Egun da Santi Mamiña*.



**Bertolt Brecht'en lau poema (EP)**  
Goiztiri, 1969

■ Idazle alemanaren lau olerkiri -Joxe Angel Irigarai euskaraturikoak- musika jarri zien: *Munduaren esker ona*, *Gaberako aterbea*, *Denak ala iñor ezeta* *Lilurarik ez*. Mikel Forkadak egin zuen azala, aurrekoetan bezala.



**Izenbururik gabe (EP)**  
Herri Gogoa, 1969

■ Disko honetan hasi zen Zume-ta pintorearen eta Laboaren arteko lan harremana. Berriz ere kantu herrikoiak (*Haika mutil*, *Ituringo arotza*) eta poeta garaikideen hitzekin sortutakoak (*Landarten Zure begiek*, *Artzeren Zilbor hesteak*) bildu zituen.



**Bat-Hiru (2 LP)**  
Herri Gogoa-Edigsa, 1974

■ Lehen disko luzea mugarriz izan zen. Disko txikiak kantu moldaketa berriekin batera, Laboaren hainbat abesti emblematikoa daude (*Arma hil zaigu*, *Txoria txori...*), baita lehen bi lekeitioak ere (*Baga, biga, higa* eta *Gernika*).

## Kantatzea geratzen zaigu

**Anjel Valdes**

Elkar diskoetxeko arduraduna

Zer esan liteke hitzak soberan daudenean, hitz soilak sentimendua definitzera iristen ez direnean? Kantatzea geratzen zaigu. Laboak egiten duen bezala. Kantatzea eta negar egitea sekula gehiagorik ezingo dugulako gizon handi horrekin egon. Kantatzea eta barre egitea bere xumetasunak dakarren pikardia guztia goratzen dugunean. Kantatzea eta alaitzea, gure bihotzari eta izpirituari bizitza, adorea eta identitatea erruz ekarri dizkiolako.

Sortzailea da batez ere; bizitzaz, gertaerez, jendeaz duen kuriositate eskergan oinarrituriko sorkuntzan dugu espezializatua eta bere lanetan islatzen den bezala, kanta transmititzea baino areago, entzulearekin komunikazio intimoa bilatzen du Laboak, harridura magikoak piztuz, trasgresio originalak eta berezkoak eskura emanez, amets unibertsalen irudi-menezko mundu bat eraikiz.

Kantuen bitartez lortu duen karkisma eta izate berdina lortuko zuen komikoa, aktorea, pintorea... izan balitz. Kolore biziak, unibertso esoterikoak, sinbologia iraunkorrak, estetika berriak bilatzen ditu une oro, metafora iradokitzailerak, emozioagarriak, gure pertsona eta herriarentzat baliogarrak eta ezinbestekoak diren irauteko motiboak sortzeko unean.

Imitazina, errepikazina, bakarra, maitagarria, Mikel Laboak badaki afektua erakusten eta jasotzea ere gustatzen zaio, haur kutsatugabeak egiten duen inozentzia eta sotiltasun berdinarekin. Gauza txikien edertasuna, pertsona hurbilen berotasuna, herriko jendearen naturalitatea, jatekxetako sukaldeetako usain gozoak miresten dituen gizon handia da Mikel. Bizitarako eredu paregabea, apala bezain eskuzabala, zoragarria!  
Ezingo dut sekulan ahaztu.



**Lau-Bost (2 LP)**  
Xoxoa, 1980

■ Bikoitza izan zen Laboaren bigarren disko luzea ere, sorkuntza oparoko hamarkada bati amaiera emanez. Berriz ere herri kanta (*Kantuz*, *Xoxo beltza...*), poeta garaikideen hitzak (*Leteren Izarren hautsa*, *Artzeren Besterik ezagutu ez eta...*) eta lekeitioak daude.



**Txerokee (LP)**  
IZ-Seaska-Elkar, 1990

■ Xabier Montoia idazle eta kantariak bultzatutako ekimenari esker, hainbat rock taldek omenaldia egin zioten Laboari, haren kantu bana moldatuz: Su Ta Gar, Negu Gorriak, Delirium Tremens, M-ak, Tapia eta Leturia, Bap!!, Pottoka, Karkaxa, Anjel Katarain, Kiowak eta Bukaera.



**Gernika zuzenean. 2 (CD)**  
Elkar, 1999

■ Donostiako Musika Hamabostaldien barruan, Euskal Herriko Gazte Orkestrarekin eta Donostiako Orfeoia-rekin Viktoria Eugenia antzokian emandako kontzertua jasotzen du. Kantu zerrendan nobedade nagusia *Kiromantzidxa* lekeitioa da, Sarrionandiaren hitzekin.



**6 (LP)**  
Elkar, 1985

■ Iñaki Salvador pianistarekin elkarlan garrantzitsu eta emankorra hasi zuen. Laboaren kantuak jazzaren moldaketez jantzikatu zituen Salvadorrek. Ohiko poetak ez ezik (*Lete*, *Artze*), Atxaga (*Lizardi*) eta Sarrionandia (*Sorterriko koblak*) ere hartu zituen Laboak kantarako.



**Zilbor hesteak (LP)**  
Elkar, 1992

■ Mikel Laboaren hainbat kanturen moldaketa instrumentalak grabatu zituen Iñaki Salvadorrek, kantariaren gertuko kolaboratzaileak: *Txinaurria*, *Izarren hautsa*, *Lizardi*, *Gaberako aterbea*, *Zilbor hesteak...* Josetxo Silguero eta Jesus Artzek lagundu zioten, besteak beste.



**60ak + 2 (CD)**  
Elkar, 2003

■ 60ko hamarkadan kaleraturiko disko txikiak bildutako kantuak jasotzen ditu bilduma honek, baita 70eko hamarkadan eta 1980ra arte grabatutako kantu ezagunenak batzuk ere (*Izarren hautsa*, *Martxa baten lehen notak*). 90eko hamarkadako bi ale ere badaude.



**Lekeitioak (LP)**  
Elkar, 1988

■ Bere sorkuntzaren alderdirik esperimental eta arriskatuena, lekeitioek osaturikoa, jaso zuen bilduma honetan. *Baga, biga, higa* eta *Itsasoa eta lehorra* izan ezik, beste guztiak berriz grabatu zituen, Iñaki eta Eduardo Salvador, Jesus Artze, Andoni Aleman eta Joseba Tapiarekin.



**14 (LP)**  
Elkar, 1994

■ Kantuan hasi zeneko 30. urtemugarekin batera kaleratutako diskoan, John Cage eta Camaron de la Isla omendu zituen (*Muga*), eta Salvador Espriu (*Assentiré de grat*), Fernando Pessoa (*Nao es tu, faculdade de sentir*) eta Sarrionandia musikatu zituen.



**Xoriek 17 (CD)**  
Elkar, 2005

■ Mikel Laboaren estudioko azken lana nekeza baina mamitsua gertatu zen. Kantu berriak (*Orduan*, *Agonia*, *Sustraiak han dituenak*), omenaldiak (*Jacques Brel*, *James Joyce...*) eta kantu zaharrak (*Txoria txori*, *Langile baten galderak...*) batu zituen.



**12 (LP)**  
Elkar, 1989

■ 6 diskoaren ildoari eutsi zion. Atxaga (*Galderak*, *Antzinako bihotz*) eta Sarrionandia (*Lili bat*) musikatu zituen, bere egin zuen Thelonious Monken *Round midnight*, *Gaberako aterbea*-ren moldaketa berria grabatu zuen... Josetxo Silguero saxofoi jolea taldean sartu zen.



**Zuzenean (CD)**  
Elkar, 1997

■ Gasteizen eta Donostian eskaintako emanaldien grabazioa baliatu zuen Laboak bere lehen zuzeneko diskoa argitaratzeko. Bere ibilbide osoko kantuak jasotzen ditu, baita kantu berri bat ere, *Pee Wee*, Iñaki Salvadorren musikarekin eta Tony Williamsen hitzekin.



**Lekeitioak (CD)**  
Elkar, 2007

■ 1988an argitaraturiko diskoaren berrargitalpenak Mikel Laboaren lan esperimentalaren ikuspegi osatuagoa eskaintzen du, geroztik sortutako lekeitioak ere biltzen baititu, eta baita artean argitaratu gabekoak ziren beste batzuk ere. Laboak bizirik zela argitaraturiko azkena da.



«Euskararen eta honen poetikaren enbaxadore unibertsala izan da»

**Xabier Ezeizabarrena**  
Donostiako EAJren bozeramalea

«Laboak sentimendu poetiko handia utzi digu bere musikan, bakearen eta askatasunaren alde kantatu duen hizkuntzetan amaitzen ez den sentimendua. Laboa euskararen eta honen poetika bereziaren enbaxadore unibertsala izan da».

«Bere musikak euskal kantautoreen belaunaldi gazteetan eragin du»

**Eusko Alkartasuna**

«Zalantzarik gabe, bere musikak euskal kantautoreen belaunaldirik gazteetan eragin du, eta zortez, utzi duen ondareak gurekin jarraituko du eta denbora pasa arren bere kantuek bizirik iraungo dute».

«Euskal musikagintzan egin duen lana ordezkaezina da»

**Ezker abertzalea**

«Dudarik ez da euskarak, euskal kulturak nahiz Euskal Herriak musikari eta pertsona garrantzitsua galdu dituela, izan ere, oparora eta ordezkaezina baita Laboak euskal musikagintzan egindako lana eta utzi duen uzta».

«Lan garrantzitsua egin du euskal kulturaren eta euskararen sustapenean»

**Ezker Batua-Berdeak**

«Lan garrantzitsua egin du euskal kulturaren eta euskararen sustapenean. Erreferente musikal eta kulturala izan da Euskadin zein atzerrian. Gurekin jarraituko du bere musikaren eta artearen bidez».

«Muga lokalistik gaitu dituen erreferente kulturala izan da»

**Odon Elortza**

Donostiako alkatea  
«Bihotzez sentitzen dut euskal musika eta kultura sakon berri-tu dituen kantari eta artistaren galera. Laboa muga lokalistik gaitu dituen erreferente kulturala izan da eta izaten jarraituko du».

«Bere izateko erak purutasunez eta gustuz busti du bere obra guztia»

**Maria Jose Usandizaga**

Gipuzkoako PPKo lehendakaria  
«Talentu handiko gizona izan da, apala eta lotsatia, eta izateko era horrek purutasunez eta gustu handiz busti du bere obra guztia. Bere kantuak esperientzia pertsonal askoren parte izan dira».

# Zilbor-hestea

Belaunaldien mugak gainditu, eta ondoren etorri direnen erreferentzia izan da Mikel Laboa musikari askok diotenez, pertsona «goxoa» betiere

**A**rtista handia bezain pertsona «goxoa» izan da Mikel Laboa euskal egile askoren zat. Derrigorrezko erreferentzia izateaz gain, Laboarekin harreman berezia izan dutela diote Gari, Ruper Ordorikak, Karlos Osi-nagak eta beste hainbatek. Askorekin proiektuak partekatu ditu, kolaborazioak. Beste askok bere tratu «abegikorra» nabarmendu dute, bere telefono deiak disko edo kontzertu batengatik zorionak emateko.

**ANARI**

Musikaria

«Artista bezala handia izan bada, pertsona bezala ez dago azaltzerik hitzen bidez»

«Nik uste dut artista eta pertsona bereizi behar direla Mikel Laboaz hitz egitean. Artista hor zegoen orain dela urtebete eta hor egongo da betirako. Baina ni benetan pertsona bezala harritu ninduen gehien, zein pertsona umila, zein garbia zen. Eta badakit familian ere antzekoak direla, ezagutzen baititut. Haiei muxu handi eta goxo bat bidali nahi diet.

»Sortzaile bezala, bi belaunaldi-edo harrapatu gaitu. Zaila da azaltzen zergatik, baina beti pentsatu izan dut artista handia izan dela beti aurrera egin duelako. Belaunaldi berriek ere ulertu dugu bere alde arriskutsuena, eta kantagintza zaharra ere hor dago. Artista bezala handia izan bada, pertsona bezala ez dago hitzekin azaltzerik nola izan den».

**JUAN CARLOS PEREZ**

Musikaria

«Bere estiloa utzi du, bere era plastikoa, eta hori asko da niretzat»

«Ja oroimena dudanetik izan gara lagunak. Bera horrela zen, lagunekin oso erraz aritzen zen. Niretzat artista handia izan da, eta bere estiloa utzi du, bere era plastikoa, eta hori asko da. Bere bizitzeko era eta bere proposamen artistikoa berdina da, bat datoz behintzat. Bizitza zen garrantzitsuena berarentzat eta hortik ateratzen zuen bere sormena. Beste begirada bat zuen,

beste perspektiba bat, eta horrek ematen zion desberdintasuna. Artistak eta pertsonak bat egiten zuten Mikel Laboarengan».

**RUPER ORDORIKA**

Musikaria

«Bere ahotsak euskaldun jendearen bihotzean iraungo duela uste dut»

«Gaur benetan egun samina da; niretzat sentimendu itzela izan da bere heriotzaren berria. Lerro hauek aprobetxatu nahiko nituzke, Mikel Laboaren izena gorai-patzeko. Maisutzat daukat, hala

eduki dut beti, eta uste dut, bere ahotsak iraungo duela euskaldun jendearen bihotzean, eta oro har, herri-musika eta musika talde guztien gogoetan.

»Nire aitak haren single erdiklandestinoak ekartzen zizkidan; horrela iritsi zitzaidan Laboa. Hala ezagutu nituen bere kantu zaharren moldaketa ahaztezin haiek. Musikari bezala esango nuke gure aurrekoek emandako altxor handiena eman digula, alegia, beste lurraldetara sartu ahal izatea ahalbidetu duela pentsaezina gerta daitekeen moduan, nolabaiteko abanguar-

dian; nahasketa horrek Laboaren ahotsean bat egiten zuen, bere intuizio musikalean.

»Nire bigarren diskoa atera nuenean telefonoz hots egin zidan, oso hitz goxoeekin, nire lehenengo aktuazioa Donostian, Viktoria Eugenioan, berari esker izan zen, berak eraman ninduen. Ez da bakarrik kantari eta musikari berezia izan, baizik eta oso pertsona abegikor eta goxoa; gainera bere hurrengo belaunaldiekin ardura hartu izan du. Orain dela astebete egon nintzen berarekin, Bilbon, eta beti bezala harekin egotea opari bat izan zen. 'Ez dakit Urrezko Domina hartu edo ez' esan zidan. 'Euskaldun jendeak aspaldian eman dizu domina hori Mikel', esan nion, 'urte gorri eta guzti'. Kantarion izenean, gure izenean hartzeko eskatu nion. Izan ere, jendeak bere ahotsa en-



Habánara joan nintzen ekimeneko argazkia. Mikel Laboa (Bigarrena ezkerretik hasita) lagun talde batekin joan zen Kubara, besteak beste, Gari, Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga eta Jose Luis Zumetarekin. 'MIKEL LABOA' LIBURUA

## Pixka bat umezurtzago

**Andoni Tolosa**

Musikaria

**A**zkenean Rimbaud etorri zaio bisitan Laboari eta eskutik eramanez alosdorrearen itzalpera. Zeruan Gernika bonbardatzera zihoazen hegazkinek itzal luzea utzi zuten haien atzetik. Ituringo arotzak nostalgiak jotako bihotz tipiak marraztu zituen Baztango lurretan eta denok izan ginen pixka bat txerokiago baga biga lehen al-

diz entzun ondoren. Oihaneko pa-goak blai, isil, kale gorrian dabilen gizonak atsedean har dezan. Borroka luzea da inor gose ez izatearena.

Beldur ginen moduan, lore-dien maitalea larritzen hasi da, noraezean dabil eta izarren hautsa pilatzen hasi da errepide hertzetan. Gaur badakigu denok ditugula bazter ezkutuetan gure baitan, soilik kanpoan behe-lainoa dagoenean ikusten ditugunak. Gaur Laboari esker badakigu zo-

zoak ere lurpean sartzen dituztela kaiolan bizitza eman ondoren, txori erresinulak sasoi jakin batzuetan kantatzen dutela, eta ondorioz, pixka gizakiago gertatzen gara. Orain negu hurbilak apur bat izutzen gaitu, taberna zokoan herria eta hizkuntzaz ari garenean, eta ez dakigu nork jasoko dituen hemendik aurrera historia liburuei egin nahi dizkiogun galderak.

Atzotik aurrera pixka bat umezurtzago gara.

**MIKEL LABOA** (1934-2008)

«Asko maite ditut txoriak. Hegan egiten dudala amestu dut inoiz. Hori denok egiten dugu, ezta? Musikagintzan bada txoriekiko harremana, halako mundu berezia sortzen duena»

tzutean paraje ezagun batean sartzen da. Hala sentitzen du. Eredua da guretzat, eta ez bakarrik hemen, baita atzerrian ere».

**FERMIN MUGURUZA**

Musikaria

«Belaunaldien arteko lotura egin zuen, gazteekiko zuen interesa medio izan zela»

«Mikel Laboa belaunaldien arteko lotura egin zuen. Gazteek egiten zutenekiko interesa erakutsi zuen beti, adibidez 90eko hamarraldian. Kortaturekin ere kolaboratu zuen, baita geroago belaunaldi berriagoekin ere. Beraz, lorkarri estu bat eraiki zuen».

**GARI**

Musikaria

«Nahiko 'umea' zen, eta horrek sentsibilitate eta indar berezi bat ematen zion»

«Artista bezala, eszenategian zuen aura berezia azpimarratuko nuke. Ez naiz berarekin taula baten gainean egon, baina gogoan daukat Habanan, Madrilen edo beste leku batzuetan nola hazten zen eszenategira igotzean, baina hazi barruko zentzuan, zentzu onean.

»Oso berezia zen berarekin kantatzea. Eta pertsona bezala beste hainbeste esan daiteke. Niretzat ez zegoen alde handia artistatik pertsonara. Biak esku beretik zihoazen. Laboa nahiko 'umea' zen kakotxen artean, bai pertsona bezala, bai artista bezala, eta horrek ematen zion sentsibilitate eta indar berezi bat. Niretzat maisua zen, eta zorte handia izan dut azken urteetan elkarrekin egoteko aukera asko izan dudalako. Tipo handi bat izan da».

**KARLOS OSINAGA**

Musikaria

«Musikaren barruan aukeratu zuen bidea aukeratu izana txalogarria da»

«Horrelakoetan beti gauza berdinak esaten dira, baina oraingoan lasai esan daiteke jenio bat izan dela, nik ezagutu dudana jenio bakarra egia aitortu behar badut. Musika mailan hala da, eta bera ezagutu ondoren sentsazio hori are handiagoa da. Handien soiltasuna zuen zalantzarik gabe.

»Horrez gain, musikaren barruan aukeratu duen bidea aukeratu izana benetan txalogarria da, herriaren ahotsa izan baitzitekeen besterik gabe, baina areago joan zen, beti lan berritzailea

egiten. Beti egin izan zuen une bakoitzean nahi zuena. Nirekin izan duen harremana oso bihotzekoa izan da beti, oso goxoa. Halakoxea zen askorekin».

**XIMUN HARAN**

Kultur eragilea

«Iparraldeko kantuak oso gustuko zituen, batez ere Mixel Labegerirenak»

«Laboa hastapenetan ezagutu nuen. Garai hartan, Ez dok amairu eta halako talde guztiek ez zuten euskal kantugintzaren inguruan ezer ere ezagutzen. Euskal musika Club du disque basqueri esker deskubritu zuten. Orduan ezagutu zituen Laboak *Oh Pello Pello* eta halako abestiak. Iparraldeko kantu ugari erabili zituen; oso gustuko zituen, batez ere, Mixel Labegerirenak.

Ez dok amairu sortu berria zela, behin Benito Lertxundi, Mikel Laboa eta beste hainbat kide Etxaun Iruri bisitatzera joan ziren. Jatetxe batean bazkaltzen ari ginela, abesten hasi, eta Lertxundi eta Laboak gitarraz laguntzen hasi ziren. Guk ez genuen euskal musika gitarrekin ezagutzen eta edozein herrikako enparantzan, goiz batean abesti bat letra eta doinu berriekin sor-

tzeko erronka jarri genien, baina ez zuten onartu.

»Ez dok amairu euskal munduarekin lotutako ororekin fanatikoa ziren. Irigarai ere taldean zen, hona etorri ziren, Iparralde-  
ra, abeslariak eta abestiak ezagutzera. Laboak behin baino gehiagotan eman dizkio eskerrak Iparraldeari bere kantugintzagatik.  
»Akaso bost edo hamar urte igaro dira azken aldiz ikusi nuenetik. Bakoitzak bere bizia genuen, baina izugarri estimatzen nuen. Haren heriotzaren berri izan dudanean pena handia sentitu dut, baina bizitzaren bidea da.

**JOSEBA TAPIA**

Trikitilaria

«Laboa abeslaria zen eta hark irakatsi zidan abeslari izateko bidea»

«Musikan erreferentia izan da niretzat Mikel Laboa. Abeslari ikaragarria zen, eta hari esker ikasi nuen horretarako bidea. Ziur aski, nire musika ibilbidea bestelakoa izango zen Laboaren eraginik gabe. Benetan azpimarragarria da Laboak abestien letren bilaketan egindako lana. Josanton Artze esaterako Laboari esker ezagutu nuen».

**AMAIA ZUBIRIA**

Musikaria

«Tabernetan kantatzen genuen, eta kontuak esaten aritzen ginen»

«Artista izugarria izateaz gain, Mikel Laboa oso gertuko pertsona izan da niretzat. Askotan tabernetan kantatzen genuen, eta kontuak esaten aritzen ginen han eta hemen. Bihotzera iristen zen pertsona izan da beti».

**MIKEL MARKEZ**

Musikaria

«Kantu tradizionalan Laboa urrutien joan zen»

«Ez bakarrik Mikel Laboak, Ez dok Amairuren garaian hausnarketa bat egin zuten musikariek, konturatu ziren zein garrantzitsua den herri-musikari erreparatzea. Berezi Laboak jorratu du era berezian. Kantu zaharrak berreskuratu eta molde berria batean ematea. Kantu tradizionalan Laboa urrutien joan zen; ahaztezinak dira *Pasaiako herri-tik*, eta beste hainbat abesti ezagun».

(Testuak: Xabier Martin, Gorka Erostarbe, Aitor Abaroa eta Naiara Elola)

# Dolu eguna

**Lluís Llach**

Musikaria

Zer esan liteke hitzak so-bran daudenean, hitz soilak sentimendua definitze-  
ra iristen ez direnean? Kantatzea geratzen zaigu. Laboak egiten duen bezala. Kantatzea eta negar egitea sekula gehiagorik ezingo dugulako gizon handi horrekin egon. Kantatzea eta barre egitea bere xumetasunak dakarren pikardia guztia gogoratzen dugunean. Kantatzea eta alaitzea, gure bihotzari eta izpirituari bizitza, adorea eta identitatea erruz ekarri dizkiolako.

Albiste zorigaitzo hau dela eta, ez nion hutsik egin nahi zuen herri-  
tik jasotako deiari; hil egin baita Mikel Laboa, eta bai baitakit haren galerak hutsune samingarria ekarriko duela, dolumin bihotz-bihotzetikoa. Uste dut halaxe behar duela izan, gainera. Egun ikaragarria, gaurkoa, bart beste pertsona bat ere hil baita, Joan Baptista Humet, nik askotan lankide izan dudana pertsona; ahalegindu naiz, ahal izan dudana heinean, hura aupatzen. Eta, gero, Mikelen heriotzaren berri eman didate, eta zeharo hunkituta nago. Uste dut pertsona handi bat hil dela, Euskal Herriko kultura suspertzen

erabateko garrantzia izan zuena. Uste dut berebiziko erreferente bat hil dela, musikaz eta arteaz baino askoz harago doana. Eta uste dut, halaber, haren herrikoek ere halaxe sentituko dutela, ezinbestean. Dolu egun nazionala da haren herriarentzat.

Neure kolkorako gorde nahiko nituzke, guk biok elkarrekin bizi izandako gertaerak; azkenengoz elkar ikusi genuenean, ez zen ordurako lan kontuengatik izan, bion arteko harremana zela bitarteko baizik. Aspaldikoa baitzen, oso, gure harremana. Konplizitatea, adiskidetasuna eta miresmen erabatekoa zituena ardatz.

Ageri zituen kontraesanetan ere koherentea zen, nolabait esatearren. Artista gisa, hark jokaturiko paper konplexu guztiak egingo nituzke neure, oso-osorik. Hainzen apala eta neurritsua beti; konpromisoak eta erantzunak eskatzen zizkion jendeak, eta horren lekuko zuzen izan naiz, ni neu. Musika aldetik, ausarta zen, berritzailea, guri burutik pasatuko ere egingo ez litzazkigukeen gauze-  
kin ausartzen zen. Horrexegatik da hain handi; hiru arloetan ere bat eta bera izan delako. Ezin hizpidera ekar daiteke Mikel, artista gisa bakarrik. Ezin hizpidera ekar



Mikel Laboa Lluís Llachekin, Donostian. BERRIA

daiteke Mikel, herri edo politika ikur gisa bakarrik, alegia Euskal Herriko kultura suspertzen eta herriari zegozkion makina bat gaitan esku hartzen jarduteagatik. Handia zen, aldi berean, herriko ordezkari eta artista gisa. Haren handitasunak berezko zituen bi ezaugarri horiek. Itxuraz eta jarreraz apala izanagatik, barne nortasun handikoa zen, bihotz-zabala erabat, ausardia izugarrikoa, betiere harago joanarazten zuena eta modu berriak saiatzera akuilantzen, edonor harri eta zur uzteraino. Eta hori gutxi izango balitz bezala, gizatasun neurrigabea ageri zuen...

Egia aitortzeko, haren oroitzapen ugari dut, baina neuretzat gorde nahiko nituzke. Pribilegio

bat izan da, niretzat, hark ni bere laguntzat edukitzea; eta pribilegio bat izan da, niretzat, harekin lan egin ahal izatea. Ondo gogoan dut harekin izandako lan saio bat, berebiziko gaua izan baitzen Anoetako hura. Gogoangarria, benetan, ezin ahaztuzko kontzertua izan zelako. Biok elkarrekin lan egin, abestu eta gozatu genuen, oholtza gainera igota, eta aurrez aurre genuen jendearen harrera suharrarentzat ahal izan genuen. Negar egin nuen gau hartan, oholtza gainean, hantxe bat-batean moldatu zuen *Gernika*-ren aldaera zirrargarri hura entzunda. Artista handi baten jardun ikusgarriaren ikus-entzule pribilegiatu izan nintzen une hartan, eta itzelezko pertsona haren lekuko aparta.

**www.berria.info-n utzitako mezuak**

«Aparteko pertsona izan zara eta baita musikaria ere. Gure seme-alabek, nahiz eta gazteak izan, zure abestiak kantatzen dituzte askotan. Beti bere herrikoa, hau da, Euskal Herrikoa izan den pertsona on bati, mila esker utzi diguzun altxorragatik». ■ **Kari**

«Oraindik ere, une magiko bezala, gogoratzen dut. 1977an esnatu berrian eta 14 urte eskasekin, goizeko zazpietan, eta nire bizitzan lehenengo aldiz, abesti bat entzun nuen; liluraturik geratu nintzen: Mikel Laboaren *Haika Mutil* abestia zen, inoiz entzun dudana soinurik politena. Eskerrik asko». ■ **Peio**

«Behin, 14 bat urte nituela, Usurbilgo taberna batean egin genuen topo eta elkarrekin hizketan jardun genuen. Lasai. Sinadura bat eskatu eta tabernako paper zati batean idatzi zuen 'nire adiskidearentzat, bihotzez'. Oraindik zintzilik dugu sukaldian. Sinadura botatzen lotsatu egin zela aitortu zigun». ■ **Patxi**

## MIKEL LABOA (1934-2008)

«Lisabö, Anari... Etorbizuna gazteen esku dago orain, eta nik egindakoak zerbait esaten badie, edo nire musika zerbaitetarako baliagarria bazaie, bada hori pozgarria da niretzat»

Mikel Laboa abeslaria, *Xoriak* bere azken diskoaren aurkezpenean. LUIS JAUREGALITZO / ARP

## Ahotsaren magia

**Pello Urzelai**

'Mikel Laboa' liburuaren egilea

**A**zti-ahotsa. Poesia magia bihurtzen duena. Sentimenduei hegala ematen dizkiona. Mikel Laboak azti baten ahalmenak izan ditu. Hitzetan azaldu ezin daitezkeen ahalmenak. Ondorio horretara iritsi nintzen, duela zenbait urte, AEKK eta Korrikak egin zioten omenaldira, Mikel Laboaren ibilbidearen laburpena egitea egokitu zitzaidanean. Mikelek eta Marisolek beren etxeko atea eta harekin batera beren oroitzapenen kutxa zabaldu eta haiekin hamaika ordu goxo eman ondoren.

Ez dakit noraino jabetzen zen Mikel Laboa bere obraren transzendentzia. Agian, bere apaltasunak ez zion uzten ikusten. Kontua da bere ibilbidearen hainbat pasarteri garrantzia eman ahal izateko, hemerrotekaren laguntza behar izaten zuela, hau da, beste norbaitek horretaz ohartaraztea. Hemerroteka, baina, lekuko mugatu bat besterik ez da izan haren kasuan.

Bi hari nagusi uztartzen dira Mikel Laboaren sorkuntzan: bata, herri kantagintza oinarritzen da eta garatzen du; bestea, esperimentazioan murgiltzen da, ahotsa, musika eta keinuaren bestelako aukerak jorratzen ditu, adierazpide berrien bila, barne bizipen sakonak transmititu ahal izateko. Beti iruditu zait Mikelek bereziki gogoko izan duela bigarren hari hau. Ildo hori azaltzen jartzen zuen grina ez zela soilik ulertzeko zailago delako, bereago sentitzen zuelako bai-zik.

Ez da kasualitatea *Baga-biga-higa* (1969) kantuarekin hasitako bide esperimentalari disko guztietan eutsi izana eta, hainbait urte geroago, lan horiek guztiak album berezi batean, *Lekeitioak* (1988), bildu nahi izana. Bere sormenaren harribitxia bailitzan.

Azken batean, nola adierazi doinuaren bidez herri baten iraupenari buruzko kezka? Bide eder bat

Xalbadorren Herria eta hizkuntza bertsoak kantatzea izan daiteke. Baina Mikel ez da molde horrekin konformatu. Ipar Ameriketako cherokee indiarren historian inspiratuta, *Lekeitio 8* ere sortzea hautatu du, non herri ikusezina-ren sentipenak adierazteko cherokee indiarren lanturuak zuberotarren mintzoarekin uztartu dituen. Gernikaren bonbardaketaren tragedia azaltzeko *Gernika - Lekeitio 4* sortzean aukeratutako bidearen balioari eutsiz eta berretsiz.

Mikel Laboa beti izan da bere ruarekin leial. Ez dok Amairu mugimendua bultzatzean bide berriak urratu eta arriskatzeko izan zuten prestasuna atxiki du. Taularatu den bakoitzean sentitu duen zorabioaren antzeko sentsazio hori bere gain hartutako arriskuaren isla baino ez da. Kantaldi bakoitzean bere ahots hauskor hori, hari fin batetik zintzilikatzeko prest agertu baita.

Azti-ahotsaren magia, nire irudiko, haratago ere iritsi da. Magia horren ahalmen berezia, kantuak betikotzeko dohainean datza. Lehenik, herri tradizioetik hartutako kantuekin hasi zen. *O Pello Pello*, *Bereterretxeren Kanthoria* edo *Haika mutil* bezalako kantuak hartu eta bere ahotsa jarrita, bizi berri bat eman die. Gogoan izango dira betiko. Baina ahalmen hori aukeratu duen poema bakoitzeko erreberritu egin da. Hasieran, Jozean Artze, Xabier Lete, edo Bertolt Brechten poemekin. Geroago, Bernardo Atxaga edo Joseba Sarrionandiarekin. Azken batean, azken testu hauek mendeetan zehar irauten duten herri kantu bihurtu ditu (*Txorria txori*, *Izarren hautsa*, *Ez nau izutzen negu hurbilak*, *Lili bat*, *Antzinako bihotz...*). Mikel Laboari esker, euskaldunon nortasun, sentimendu eta oroitzapenen zati bat -Joseba Sarrionandiak dioen bezala, "itsas galeretako oholak bezala"- ez dira inoiz hondoratuko, belaualdiz belaualdi jarraituko dute, gure buzti-nezko bihotzean.

## Jatorrizko etxetik

**Juan Gorriti**  
Artista

**B**ehin baino gehiagotan hitzegin genuen hortaz. Zuhaitzak ez direla hiltzen, haizearen indarrez eta haziaren hegaldiaz lagunduta badabiltzala eta harrapaezinak diren kilometroak egiten dituztela. Mikelekin gauza bera gertatzen da.

Zerbaiten antzik badu, hagina-

ren antza du, Euskal Herriko zuhaitzik zaharretakoa; eta hori inoiz hiltzen ez den horietakoa da, ibilbidean dabil, isilik, bere pausua ikustezina bada ere.

Hemen gaude; Batzarren, *casa matriz* bezala betirako bataiatu zenuen etxean, suaren inguruan, urdaiazpikoa eta ardo basoa: botika eta errebotika eta atsegi-

nezko siesta. Txaron, Jon eta hirurok; zurekin, Marisolekin, Agurtzane eta Izarorekin.

Benetazkoa sinpletasunean dagoela bazenekien eta ez dago ezer sinpleagorik urteotan zure presentziarekin bete duzun «jatorrizko etxe» honen espiritua baino. Hemen geratzen da. Suaren kearrak egiten duen modura,

Batzarrek Mikel Laboraren itsatsia jaso du, arratsalde erdiko bisitak, tertulia lasaia eta patxadazkoa. Etxe honen pareta bakoitzean sentimendu korapilo bat dago, sukaldarantz doan eskilara maila bakoitzean maitasun lokarria.

Hotza egiten du gaur Araitzko haran honetan. Eta Aralarreko hagin zaharretatik kolore biziaz jantzitako txori taldea dator.


Mikel Laboarekin kantari ari dira.

**MIKEL LABOA** (1934-2008)

«Bertold Brecht betidanik egin zait deigarria. Hain poesia sinplea ematen du bereak, eta zein gauza garrantzitsuak esaten dituen. Aldatu dira garaia baina olerkiek zentzua izaten jarraitzen dute»



Jose Luis Zumetaren Gernika obraren erakusketan abestu zuen 2000. urtean Mikel Laboak. NAGORE KOCH



Haurren munduarekin harremana izan zuen beti Laboak. 1998an Urruñako ikastolako ikasleekin argazki hori egin zuten, ikastolaren alde eginiko kantaldiaren aurretik BERRIA



Donostiako Orfeoiarekin eta EGOrkin kontzertua eman zuten 1999an Musika Hamabostaldian. BERRIA



Benito Lertxundirekin eta JosAnton Artzerekin batera, EHUK Ez Dok Amairuko kideek egindako lanari emandako Urrezko domina jaso zuen 2000n. BERRIA



1995ean Korrikaren amaieran parte hartu zuen. BERRIA



Iruñeko Gaiarren eman zuten jendaurreko lehenengo kantaldia, 1957-1958 aldera. Angel Ganuza izan zuen lagun. MIKEL LABOA LIBURUA



Jean Phocas eta Iñaki Salvador lankideekin 1985ean. MIKEL LABOA LIBURUA



Oteizarekin harremana izan zuen artista hil aurreko urteetan. F. LARRURKERT

## MIKEL LABOA

(1934  
2008)

«60ko hamarkadan kultur leherketa bat izan zen Euskal Herrian; Jorge Oteiza izan zen motorra, baina hor izan ziren Ez Dok Amairu, Jarrai eta nire obran eragina izan zuten artista interesgarriak»

## Galeraren kantuaren minean


**Jose Angel Irigarai**  
Ez dok amairuko kide ohia

**T**riste daude gure bazterrak, penetan hegoak ebaki gabeko txoria, tristuraz azal eta mami hainbat izaki, gertaera, toki... beren mugaz haratago kantu bilakatu hegan hedatu zituena egun jada izarren hauts inerte bilakatzeko bidean delako. Eta haiekin batera gu, familia errotu eta irekiko senide hurbil edota sakabanatuak, bihotza bete urradura mingarri gelditzen garelarik egun gris, hotz, triste, hits honetan hain gauza ederrak sortu eta bizitu dituen bidaide, gogaide, bizikide eta adiskide sentibera zen delako jadanik.

Eta orain dagokiguna galeraren minarekin kantuan segitzea da. Hitzak baino haratagoko lurraldean sortu eta ondu kantua, bizipozaz eta bizi minnez, maitasunez eta amorruz, beldurrez eta antsiz, sorkuntzaz, ametsez eta oroitzapenez... eta hitzez adierazi ezin daitezkeen hameka egitatez mamiuriko lurraldean sortu eta onduri-ko galeraren minaren kantua.

Eta hor, utzitako uzta oparo eta jorriaz kantatzen hasi bainoago orain, begietarat malkoa agertzen den bezala, bihotz zolan zimiko mingarria sentitzen den antzera, ausentziak uzten duen betezinezko hutsune urratutik sortzen zaidana auhena da, pena, hura bizirik ez dagoelako, hura ez delako gehiago gai maite zituen bazterrak sentitzeko, usaintzeko, ikusteko, ez delako bizitzan gehiago, zen delako jadanik. Norberaren mailatik haratago, beraz, haren ausentziarekiko herri mailako dolumina, umezurtzatsuna, beste hainbatengan haien oihartzuna.

Kantua eginagatik, hala ere, ez da aise hutsunea berdintzea, funtsean ezin da. Kontsolamendu bakarra da haren zirrararen bereziz beteriko ahots gardenak, haren eguzki printzez bezainbat lanbroz eta misterioz amultsuki bilduriko kantuak, belaunaldi belaunaldi eta tokiz toki, iduri lukeen baino haurrideago egiten gaituela sentitzea. Kontsolamendu eta arnasa. Gure aroan hainbat lurralde eta arlo 'oin puntetan' baina deliberamenduz zeharkatu dituenaren heredentzia daitekeen oparoena izan baitaiteke, behar eta merezi bezala entzuten eta aditzen ikasten badugu. Laudorio eta goraiamenak baino haratago, hori dateke, hain segur, Mikel Laboa zena-arentzat oparirik preziatuena; guretzat bidaide eta gogaide egokienak galeraren patupeko txangoan. Hori eta haren bizipozaren zentzu sakona.



Militar frankisten izena zeukaten 23 kaleren izenak aldatu dituzte Iruñeko Txantrea auzoan. Asteetan kartelak hormetan egon arren, atzo jarri zen indarrean izendegi berria.

## Frankistak kalerik gabe

Iñigo Astiz Iruñea

**T**xantrea auzoko 23 kaleren izenak aldatu ditu Iruñeko Udalak. Franco hil eta 33 urtera. Kartel zaharrak kendu, eta berriak jarri dituzte. Militar frankisten izenak kendu, eta Iruñerriko herrien izenak jarri. Erdarazko kartelak kendu eta... erdara hutsezko izenak jarri: *Cuenca de Pamplona* (Iruñerria), *Imarcoain* (Imarkoain), *Cendea de Olza* (Oltza zendea)... Aste batzuk badaramatzate jadanik izen horiek kaleko hormetan, herritarrak ohituz joan daitezten, baina atzo sartu ziren indarrean. Atzo desagertu ziren izen zaharrak. Ofizialki behintzat, herritarrak ez baitira oraindik ohitu izen berrietara.

Duda egin du Jeru Buzunarizek zer kaletan bizi den erantzuterakoan. «Aznares kalean... Tira, lehen *Aznarez* deitzen zen kalean; *Tiebas* du izena orain». Ongi iruditzen zaio izen aldaketa. Pena bat du, halere: «Gazteago ginenean egin behar zuten, orain burua ez dugu hain bizkorra-eta!».

«Hasi dira lehen eskutitzak heltzen izen berriekin, baina oso gutxi dira. Pixkanaka-pixkanaka joango da aldatuz»,

dio Asun Gomez postariak. Esperientziak. «Duela hogeitun urte aldatu zituzten kale izenetara heltzen dira oraindik eskutitzak». Postariak dira oraindik Txantreako kaleen izenak dakizkiten bakarrak.

Fernando Gerra postaria izango da, ziur aski, denak dakizkien bakarra. «Aldatu dituzten 23 kaleetatik 20 dira nireak». Ikasiak ditu jadanik, eta ez du, beraz, inolako arazorik. Bestela da auzokideekin. «Herritarrek seguruaren papearak, argindarraren fakturarenak, nortasun agirikoak... paper mordoak aldatu behar dute». Bi jarrera daude. «Kexu da jende nagusia. Berdin zaie kalea batera edo bestera deitu. Jende gaztea, berriz, frankismoaren gaiarekin kontzientzia-tuagoa dago, eta pozik daude».

### Herritarrak mintzo

«Ongi iruditzen zait, noski, izenak aldatzea. Kosta egingo da izen berrietara ohitzea, baina denbora kontua da. Merezi izan du. Askok ere lehenago egin behar zuten hau». Hitz horiek esan, eta duda egin du Fermin Aguadok, izena eman edo ez eman. Ez da bakarra. Ez da galdera erraza Txantreako bizilagunentzat. Askok ez dute abizenik eman nahi, eta

izenik ere ez gutxi batzuek. «Bai, esango nizuke zer pentsatzen dudan, baina hemen bizi naiz ni, eta izenik ez dizut emango», dio haietako batek.


Abizena galdetuta, itaunketa poliziala ote den galdetuz erantzun du Jesusek. «Primerakoa» da haren ustez aldaketa, baina berandu datorrena. «Ez zituzten orain aldatu behar, ez eta duela 30 urte ere, baizik eta duela 70 urte. Jarri ere ez zituzten egin behar!».

Zeferino Goñik 50 urte egin ditu Txantrean bizitzen, eta bestelako iritzia dauka. Ez du ulertzen aldaketa. «Ez du zentzurik. Paper guztiak aldatu behar ditugu orain. Nork ordainduko ditu gastu hauek? Ordain dezatela aldatzeko eskatu dutenek!». Izen aldaketa herritarrei galdetu gabe egin dela salatu du, gainera. «Franco zena zen, noski, baina, aizu, gauza onak ere egin zituen».

«Bazen garaia frankisten izenak gure kaleetatik kentzeko», dio Ainarak. Horrek ez du horrek esan nahi guztiz pozik dagoenik, kezu baita izenak gaztelania hutsean jarri dituztelako. Iritzi berekoa da Josu ere. «Izenak aldatu egin behar genituen, derrigorrez, eta hori egin da. Orain euskarazko izenak ere jartzea lortu behar dugu».



Txantreako kaleen izen berriak gaztelania hutsean daude. IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS



Maratila

Ane Muñoz



## Max eta Dasha

**A**tzo jasotako email batek argazki eder bat zekarren erantsita.

Etiopiar jaioberri bat azaltzen zen, laster bere herritik oso urrun hazi, hezi eta biziko den umetxo beltz polita. Zorionekoa bera, ez baitzaio maitasunik faltako aurrerantzean. Ez janariarik ez jantzirik, ez behar bezalako heziketarik, eta ez Play Stationik.

Beste lagun bat Errusiara joan zen berearen bila. Umezurtegi semea izango zena lehen aldiz ikusi zuenean, Max txikia, adin bereko neska batekin zebilen jolasean. Handik aurrera, egunero topatzen zituen Max eta Dasha elkarri itsatsita, jolasean, dantzan eta, tarteka, elkarri muxuak ematen.

Semeari betiko lagun mina kentzea eta, era berean, Dasha gaixoa hantxe lagunik gabe uztea gogorra zen nire lagunarentzat. Zorionez, Gironako herri txiki bateko nekazari bikote batek hartuko zuen laster. Horra errusiarron patua, bat Madrileira eta bestea Gironara, mendiko herritxo batean bizitzera.

Txikiak aireportuan banandu zituztenetik elkar nahiko maiz gogoratzen dutela ikusita, guraso hunkituek asteburu bat elkarrekin igarotzea erabaki zuten. Ene, ikusgarria izan zen bi txikien besarkada. «Dasha!», oihi egin zuen lehen Max eta orain Mateo izena duen txikiak. «Dasha ez, Berta», zuzendu zion neskaren amak. Ein? Mateok gaztelaniaz hitz egiten zion, baina Bertak tutik ere ez, etxean katalanez hitz egiten diote eta. Halere, euren kodeekin ederki moldatu ziren txikiak. Agurtzerakoan, ama batek «adiós», besteak «adeu», eta umeek, elkarri besarkatuta, «paka». Elkartuko ote dituzte maitale txikiok berriro?

Astearte  
2008ko abenduaren 2a

berria

